



Kaio baten historia eta hegan egiten erakutsi zion katuarena

Jatorrizko izenburua: *Historia de una gaviota y del gato que le enseñó a volar*

Egilea: Luis Sepúlveda

Itzultzailea: Jesus Mari Mendizabal "Bizargorri"

Argitaratze urtea: 2007

Argitaletxea: Alberdania

MIKEL GARMENDIA

Lehendik ere ezaguna genuen euskaraz irakur zale garenok Luis Sepúlveda idazle txiletarra, euskaraturik baitauzkagu *Maitasun eleberriak irakurtzen zituen agurea* eta *Patagonia Express* idazlanak. Bagenuen haren sentiberatasunaren eta idaztankera samur eta hurbilekoaren berri.

Oraingoan, behinola Luis Sepúlvedak bere bi semetxoei egindako promesa betetz idatzitako eleberria daukagu eskuartean euskaraz. Gizakiok gure inguruari eta naturari ematen diogun tratu txarraz idatziko zuela agindu zien. Baita hala egin ere, nahiz eta ez den horretan bakarrik gelditzen. Batetik, animaliak izango ditugu protagonistak: kaioak eta katuak. Bestetik, inguru industrial eta dekadente batean kokatzen da historia: Hanburgoko portuan. Katu-koadrila batek kaio-arrautza baten ardura hartuko du hasieratik amaieraraino, kaiokumea jaiotzen denetik hegan egiten irakatsiko dioten arte, alegia. Zergatik hartu dute ardura hori katuek? Liburuan bertan daukagu erantzuna: "...diferentea estimatzen, errespetatzen, maitatzen ikasi genuen; zurekin." Horra, Zorbas katuak kaioari egindako aitorten erabatekoa. Eta zer irakatsi zioten, aldiz katuek kaioari? Eleberriaren amaieran aurkituko dugu erantzuna: "Ausartzen denak baizik ez duela hegan egiten –miaukatu zuen Zorbasesk–."

Eta gizakietan ere gizaki sentibera bat aukeratuko dute katuek aholku bila joateko, poeta bat, eta zer aholku emango poetak?, eta Bernardo Atxagaren *Kalatxoriak* izeneko poema bateko bertsoa emango du aholku. Bere lekuan sartutako aipamena dela esango nuke Sepúlvedak egiten duena, inolaz ere ez bortxatua.

Horrekin guztiarekin erraz eramaten gaitu Sepúlvedak katuen, kaioen eta poetaren eskutik sentiberatasunaren mundura, oinarritzko baloreen mundura.

Itzulpenari dagokionez, adjektibo bat jartzekotan itzulpen orekatua dela esango nuke. Batetik, ez da kontenplaziotan ibiltzen eta batere erreparorik gabe erabiliko dizkigu *ezaugarritu*, *garrasikatu*, *diferente*... Bestetik, ez da itzulpen erraz batekin konformatzen, etengabe sartuko dizkigu euskarazko lokuzio eta esamolde berezkoak. Kaio baten *historia* kontatu digu, gainera, eta ez *istorioa*; horretan ere ausart eta fin ibili zaigu Mendizabal itzultzailea. Bestetik, -enean (segituenean, eginenean...) forma darabil, eta hori ere bertan goxo egin gabe, bide berriak (nahiz forma zaharrak baliatuz izan) esploratzeko ahalegintzat daukat.

Eleberri txukun eta atsegina, eserialdi batean irakurtzeko modukoa, baita haurrei bozgora irakurtzekoa ere.